

Aginte makila eskutan, EAJ-PSE ituna gertu

Igandeko udal eta foru hauteskundeetan EAJk lortutako garaipen historikoaren ondoren, hasi dira alderdi guztien arteko bilerak; edonola ere, lehentasuna PSE-EE izango dela agerian utzi dute Gasteizko alkategai Gorka Urارانek eta Arabako ahaldungai nagusi Ramiro Gonzalezek.


Testua: **Anakoz Amenabar**
 Irudiak: **Aritz Mtz. de Luna**

Udal hauteskundeetako foku nagusietako bat Gasteiz gainean zegoen igandean. EAJ eta EH Bilduren artean inkestek iragartzten zuten lehia estua nola amaituko zain ziren denak. Aurreikuspenak, ordea, hankaz gora jarri zituzten hautesleek, eta Gorka Urاران eta Maider Etxeberria izan ziren gaueko protagonista nagusiak. Azken agintaldian gobernukide izan diren EAJk eta PSEk eman zuten ezustekoa, herritarren babes zabalarekin. Azkeneko aldiz duela 24 urte izan zen jeltzaleen zerrenda bozkatuena Gasteizko Udalean, 1995ean, Jose Angel Cuerda buru zuen taldearekin; eta, oraingoa ere, marka hautsi du Urارانek, zazpi zinegotzirekin, joan den agintaldian baino bi gehiago lortuta. Estualdia iragarri zioten, baita ere, Etxebarriari, eta aise gainditu ditu uste guztiak; bigarren indarra da, sei eserlekurekin.

Orpoz orpo izan da Miren Larrionek gidatutako zerrenda, sei zinegotzirekin, baina hirugarren lekua eskuratu du EH Bilduk, prebisioretatik aldentuta. Inoizko emaitzarik okerrenak izan ditu, bestalde, Alderdi Popularrak, 14.000 boto bidean galduta; lehengo postuetatik kanpo, laugarrena eskuratu du Leticia Comeronen taldeak. Eta azkeneko hiru zinegotziekin konformatu beharko du Elkarrekin Podemosek; igoera izan du talde moreak, halere, Ahal Duguk eta Irabazik elkarrekin zutena baino zinegotzi bat gehiago duelako Fernando Lopez Castilloren zerrendak.

'EAJ-PSE formula'
 Kartak mahai gainean, Urارانek eskura du aginte makila, eta gobernu-itun posibleen bila hasi ditu hartu-emanak gainontzeko ordezkariarekin. Aldez aurretik, baina, badirudi "hainbat marra gorri" buruan dituela; PSEtik gertu, EH Bildurekin gobernu osatzea


Udal hauteskundeetako emaitzak 2019an




a) Gasteizko Mairikomunitatea
 b) Ertza-Iturietako Partzuergoa
 c) Leñu, Lagran eta Urizaharako komunitateak
 32. Kuartango: Berdirikela EAJ eta EH Bildu artean boto kopurua (106)



Talde bozkatuena > 2.taldea > 3.taldea > Bestak





"PSE-REKIN KUDEAKETA ERAMATEA OSO ATSEGINA IZAN DA; ELKARREKIN LAN EGIN NAHIKO NUKE"

GORKA URTARAN (EAJ)


"GURE LIDERGOA PARTEKATZEKO PREST GAUDE, HIRIAREN ONERAKO IZANGO BADA"

MIREN LARRION (EH BILDU)

baztertu egin du, Radio Vitorian egindako elkarrizketan: "Erabateko desengainua izan da niretzat EH Bildu azkeneko legegaldian, antipodetan gaude bi taldeak, eta horregatik baztertu egiten dut gobernua osatzeko aukera". Larrionen taldearekin, halere, unean uneko proiektuak aurrera atera eta itunak lortzea posible izan daitekeela esan du. Sozialistekin batera egindako lanarekin, berriz, pozik agertu da Urtaran, eta EAJ-PSE formula errepikatu daitekeela iragarri du: "PSEekin batera kudeaketa eramatea oso atsegina izan da, eta ziur nago modua bilatuko dugula elkarrekin lan egiteko". Etxebarriak, bere aldetik, bien akordioa "onuragarria" izan dela nabarmendu du, eta oraindik aliantzez hitz egiteko goiz dela uste badu ere, horretan egingo du saiakera: "Herritarrek ez dituzte gustuko muturreko jarrerak, eta nahiago dituzte akordioak eta egonkortasuna". Larrion ere Urtaranek egindako proposamenen zain dela esan du Berrian egindako elkarrizketan, baina Gasteizek "desberdinen arteko" akordioak behar dituela nabarmendu du: "Bide horretan lan egiteko prest gaude. Gure lidergoa partekatzeko prest gaude, hiriarren onerako bada".

"Familiarekin gustora"

Gasteizko Udaleko formula Arabako Batzar Nagusietan ere errepikatu daiteke, lehentasunak eta jeltzale eta sozialisten emaitza onak kontuan hartuta. Ramiro Gonzalez ahaldungai duen zerrendak aurreko agintaldian baino lau eserleku gehiago eskuratu ditu, eta 2015ean baino bost gehiago lortu ditu Cristina Gonzalezzenak. Eskura dute biek gobernua osatzea, eta agertokia aurreratu nahi ez duen arren, horren aldeko jarrera agertu du ABBko lehendakari Jose



Barnealdea	2019	2015	2011	2007	2003	1999
Abetxiki	205	473	313	165	140	45
Adurtza	622	257	602	398	267	77
Eharr-Gobeo	175	224	110	161	77	24
Angio Vasco	530	357	518	406	176	30
Arana	282	405	271	210	104	23
Arantza	1169	1576	1013	984	490	143
Arantza	169	178	121	55	31	18
Arantza	199	95	737	400	116	7
Arantza	939	898	857	127	78	12
Arantza	3122	2936	2387	1900	1445	349
Arantza	700	511	434	437	404	48
Arantza	1275	1270	1123	1222	483	169
Arantza	963	570	628	783	222	88
Arantza	728	1156	482	934	322	105
Arantza	1335	597	654	434	252	163
Arantza	326	224	168	104	36	19
Arantza	661	543	436	264	56	29
Arantza	1252	649	674	1132	292	71
Arantza	767	268	267	538	95	101
Arantza	1823	1253	849	1128	143	96
Arantza	588	674	554	564	284	93
Arantza	1975	1472	1294	1722	583	174
Arantza	1965	2164	1684	1295	1057	287
Arantza	971	1038	1001	627	414	90
Arantza	385	386	446	403	152	50
Arantza	598	951	763	950	351	91
Arantza	2314	1847	1400	1483	232	143
Arantza	993	1223	923	936	456	149
Arantza	314	128	244	141	82	19
Arantza	284	85	177	105	74	19
Arantza	201	70	195	137	93	23

Antonio Susok: "Familia batean gustura zaudenean, zergatik hautsiko duzu familia horrek?". Gai zehatzekin EH Bildu edota PPrekin adostasunak lortzea ere ez du baztertu Susok. Kike Fernandez de Pinedok gidatutako taldea bigarrena da orain, iragan agintaldiko hamabi aukieretara. Beste muturrean, gainbehera handiena izan dute Elkarrekin Podemosek eta PPK; 2015etik bost ordezkari galdu ditu alderdi moreak eta lau popullarrak.

Arabako Batzar Nagusietan 26 eserleku behar dira gehiengo osoa izateko, eta 27 lortu dituzte jeltzaleek eta sozialistek. Azkeneko hartu-emanen zain, biek ala biek nabarmendutakoek gero eta gertuago uzten dute Arabako gobernurako akordioa.

'Berde iluna'

Ekainaren 15era arteko tartea izango dute alderdiek beharrezko negoziazioak egin eta akordioak lortzeko. Lurraldeko mapari erreparatuta, baina, jeltzaleen berde iluna da nagusi 28 udalerritan, eta 31tan gobernatu dezake. Besteak beste, bost udalerririk jendetsuenetan -Gasteiz, Audio, Amurrio, Agurain eta Oionen- jeltzaleen esku geratuko da aginte makila. Lautada eta Gorbeialdeko Kuadrilletan, ordea, EHBilduk lortu du boto kopuru gehien hainbat udalerritan: Aramaio, Legutio, Asparrena, Barrienda, Zigoitia edo Zuian, adibidez. Jeitsiera nabaria izan du PPK, baina Arabako Errioxako lau udalerritan nagusi da: Mañueta, Bastida, Guardia eta Navaridasen. Eta, ohi moduan, PSEren esku jarraitzen du Iruña Okak. Talde independenteez ere lekua dute mapan, zertxobait apalagoa bada ere; 24 izatetik 15era jaitsi dira. Hurrengo lau urteetarako makilak, beraz, azken karta-trukeen zain.